CONSULTING
ekonomiko, juridiko eta fiskala
Asesoría Urko
EKONOMIALARIAK
Piedad, 21 - 1. A
20700 ZUMARRAGA
Tel.: 943 72 10 11 - 943 72 10 05
Faxa: 943 72 10 11

Urko
Ekonomialariak
Aseguru artekaritza
Aseguruak
Zerga-arintzea
Jubilazio Planak - Bizitza Aseguruak
Istripu Aseguruak - Osasun Laguntza
Labeaga, 31 esk. - 20700 URRETXU
Tel.: 943 72 57 23 - 943 72 48 04 - Faxa: 943 72 48 04

TRATAMENDU TERMIKOAK
NZA
Santa Luzia auzoa
Tel.: 943 72 04 51 - 943 72 09 52 - Faxa: 943 72 43 81
EZKIO-ITXASO

ARRUABARRENA
KAFETEGI
GOZOTEGI
Festa zoriontsuak opa dizkizuegu
Legazpi, 8
Tel.: 943 722871
20700 Zumarraga

ONDO PASA JAIAK
igartua
IGARTUA, S.L.
Almacén de ferretería - Burdindegi biltegia
Jai-Alai, 3 - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
Telfs. 943 72 11 60 - 943 72 56 95 - Fax 943 72 38 62

dirdai
ZAPATAK
Ondo pasa jaiak!!
LIKIDAZIOA DELA ETA
%50 EKO BEHERAPENA
OINETAKOETAN
Eliz Kale, 7
Tel.: 943 72 54 39 20700 ZUMARRAGA

# Iraganetik etor

Gipuzkoan, ekipo gehien dituen

Urola Futbol Taldea 1971 urtean sortu zen, eta horrenbestez 1996an 25. urteurrena ospatu zuen. Dena den, herriko zaharrek diote 36ko gerra baino lehen jada Urretxu eta Zumarragako zenbait jokalari biltzen zituen Urola izeneko talde bat bazegoela.

Dena den, Futbol Federazioko agirietan talde honen berririk ez da agertzen, egun Urola izenez ezagutzen dena ez baita aurrekoaren jarraipena. Hortaz, hori eta urdinez jantzten den taldea da ofizialki lehenengoz bi herriotako futbolariak bildu zituena.

70eko hamarkadaren hasieran, koadrilek futbol txapelketa bat jokatzen zuten urtero La Salle ikastetxean, eta halako batean denak elkartu eta herritik kanpo ere arituko zen talde bat osatzea erabaki zuten.

Bigarren erregional mailako eta gazte mailako talde banarekin hasi ziren, baina urte gutxitan lehen taldeak Preferente mailara igotzea lortu zuen eta gazteentzat beste hainbat talde sortu zituzten.

Ordutik hona makina bat presidente, entrenatzaile eta jokalari pasatu dira taldetik, eta egun Urolaren futbol saila da Gipuzkoan talde gehien duena.

### 'Urolatarrak' omendu nahian

Ia 30 urte hauetan Urolan izan diren herritar guztiak omendu nahian, urte hasieran taldearen historia argazkitan erakustea erabaki zuten taldearen gungo arduradunek. Itarte Etxean jarri zuten erakusketa, eta arrakasta itzela izan zuen.



Urola Futbol Taldeak baditu 29 urte. A

# Valentin Barrena ••• Urola Futbol Taldeko lehendak

## «Ez dut gurea baino talde b

Urolaren lehenaz, orainaz eta etorkizunaz hitz egiteko, Valentin Barrena preside
beterik dago denboraldi berriari

**■ Zuzendaritzan sartu zinetenean, zein izan zen aldaketa nagusia?**

Duela gutxi dirulaguntzak bideratzeko itzarmen bat sinatu dugu bi udaletxeekin, eta horren arabera bi udaletxeek beharren arabera eman beharreko laguntzaren ehunekoa zehaztu dute. Oso akordio onuragarria dela uste dugu. Udalek ikusten dute berrehundik gora gazte kirola egiten aritzea droga-menpekotasunen aurkako kanpainarik onena dela.

**■ Iaz herriko nesken futbol taldearen ardura hartu zenuten, eta kadete talde berri bat ere atera zenuten.**

Bai, bederatzi talde federatu ditugu eta bi futbol eskola. Horrenbestez, Gipuzkoan talde gehien duen kluba gara.

*«Urola taldean ahalik eta gazte gehienei futbolean aritzeko aukera eman nahi diegu»*

Ahalik eta gazte gehienei futbolean aritzeko aukera eman nahi diegu, baina gaztetatik futbolean aritzen diren guztiei aukera eskaintzea ezinezkoa da. Urola KTk, futbolaz gain, eskubaloia, beisbola, txirrindularitza eta triatloia ere jorratzen ditu, baina futbolak biltzen du gazte gehien.

Beste arduradunekin eztabaidak izaten ditugu, baina futbola kirol nagusia dela onartu beharra dute.

**■ Presidente baino lehen, Urolako jokalari izana zara eta aurreko zuzendaritzan ere izan zinen. Zeintzuk dira urte hauetako guztietako oroitzapen onenak eta txarrenak?**

Oroitzapen onena Hirugarren Mailara igo ginenekoa da, baina ez nuke berriro ere igo ginen moduan igo nahi, igoera faseak oso gogorrak baitira. Unerik okerrenak mailaz jaitsi garenean bizi izan ditut, zorionez ez baitu sekula jokalariren batek futbolean ari zela istripu larririk izan. Une guztiak ez dira beti gozoak izaten, taldean zein zuzendaritzan ika-mikaren bat egotea normala da eta,